

Hitzaurrea



emenez eta adorez beterik dator Behinola berriz ere plazara. Hamaikagarren ale honek beldurraren inguruko monografiko oso interesgarria biltzen du bere baitan.

Aldizkariaren atarian, leiho bat *-Hitz eta Pitz-* zabalduko dugu Galiziarantz, eta bertan AGUSTÍN FERNÁNDEZ PAZEN hitzen lurrinarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Honen ondoren, *Hitzontzi* sailean, RAI BUENO ipuin kontalaria eta idazleak Grimm anaien ipuin baten bertsio aske zoragarri batekin liluratuko gaitu.

Gero, *Hizpide* sailean bi kutizi dastatzeko beta har dezakegu. Lehenengoa, MANU LOPEZek egindakoa, beldurrezko bi libururen arteko konparaketa mamitsua. Bigarrena, JUAN CARLOS ALONSOK *-psikologoa ogibidez-* burututako artikuloa da, bertan puri-purian dagoen eztabaidari aurre egingo dio: Beldurrezko ipuinek eragin ona ala txarra dute haurrengan?

Ondoren, *Hitzordu* sailaren baitan, ITZIAR ZUBIZARRETAk Galtzagorri Elkar-tearentzat prestatutako «Adur, adur, ez nauk hire beldur» beldurrezko aretoaren nondik norakoa azalduko digu.

Jarraian, *Hitz beste* sailean, adin eta genero ezberdineko erreseinak daude.

Bestalde, aipatu J. A. TELLETXEAREN margolan bikainek, ohi den bezala, aldizkaria dotoretu eta koloreatuko dutela.

Azkenik, AITOR ARANAREN *Hitzatze* interesgarriarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Bukatzeko, gure zorion beroenak Txilikuri *-aspaldiko kontua bada ere-* *Osaba Bin Floren* liburuarekin 2004. urteko Euskadi Saria irabazteagatik. Modu berean, gure zorion zintzoenak Manu Lopezi Behinola aldizkariko koordinazio lanak hain era txukunean betetzeagatik eta gure aldizkari hau aurrera ateratzeko hasiera-hasieratik egindako lanagatik.

RUBEN RUIZ